

## MAHAI SEKTORIALA

Gaur egindako mahai sektorialean gai hauek jorratu dira:

### 1. BEHIN-BEHINEKO DESTINOAK ESLEITZEA, PRAKTIKETAN ETA ZERBITZU-EGINKIZUNETAN.

Deialdia datozen asteetan argitaratuko da. Aldaketa nagusia da prozesua telematikoa izanen dela, eta zerbitzu eginkizunetan aintzat hartuko dela ezkontidearen, aurrekoen eta ondorengo mendekotasun larria kontuaren. Seme edo alaba adingabea zaintzeagatik zerbitzu eginkizuna 6 urte arte ez da luzatuko.

### 2. 2022ko LEP DEIALDIA.

Gaur magisteritzako kidegorako LEP deialdia argitaratu da, nahiz eta STEILASek deialdia atzeratzea eskatu duen, irakasle kidegoetan sartzeko Errege Dekretu berriaren aldaketa onartu arte.

Departamentuak arrazoi hauek eman ditu ez atzeratzeko:

- AFAPNAK jarritako helegitearen ondoriozko epaitik 108 lanpostuak deitzeko epea bukatzen da.
- Gainera, galduko lirateke azken birjarpen tasaren 75 lanpostuak..
- Ez dago Errege Dekretuaren aldaketa argitaratzeko datarik, eta prozesua apirilera arte luza daiteke;

horrekatzeratuko lituzke ikasturte hasierarekin lotutako prozesu guztiak..

Oposizioa gaur egun indarrean dagoen araudiaren arabera egingen da (proba baztergarriak, kasu praktikoa, oposizioan aurkeztu beharra zerrendetan jarraitzeko, etab.). Zenbait espezialitatetara aurkeztu ahal izango da, baina ez dago ziurtasunik azterketak egun desberdinetan egingen direnik, hizkuntza eta kidego desberdinen kasuan izan ezik (Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako deialdiarekin bat egiten dutenean). Bola kopurua 2ra aldatzen da, baremoa eta unitate didaktikoa egiteko irizpideetan agertzen diren ikaskuntza-estandarrak kontuan hartuko dira, baldin eta programazioa ikasturte bikoitietarako egiten bada, bakoitietarako eta gainerako gaietarako, indarrean dagoen legea 3/2020 LOE da. Espezialitate bakarrera aurkeztuz gero, aski da zerrenda guztietan mantentzeko.

### 3. FUNTZIO PUBLIKOAN SARTZEARI BURUZKO 276/2007 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA ALDATZEA.

2024ra arte, deituko dira zenbait prozesu paralelo, bi motatakoak:

- **Lehiaketa-oposizioa:** LEPetan zenbait aldaketa egingen dira: proba ez-baztertzailak, kasu praktikoa desagertzea, espezialitate batzuetan izan ezik, oraindik aldatzen ari diren beste gai batzuk. Apirilean agitaratzea aurreikusten da; beraz, aldaketa asko egon daitezke, eta ez du atzeraeraginezko Omdoriorik edukiko jadanik argitaratuta dauden deialdietan. Errege Dekretua erabat zehaztuta dagoenean, aldaketen laburpena bidaliko dugu.

- **Merezimendu-lehiaketa:** egonkortze-prozesua izango da, eta izangaien baremoa bakarrik hartuko da kontuan, oposizio azterketarik egin gabe. Prozesu horretarako deialdiak hurrengo urtean burutuko dira, eta eabazteko azken eguna 2024ko abenduaren 31 izanen da; beraz, deialdiak ebatzi arte egiten diren hautaketa-prozesuetara aurkeztu beharko da. Nafarroako kasuan, PAIko lanpostuak plantilla organikoetan jasota ez daudenez, egonkortze-prozesurako atera daitezkeen lanpostuak nabarmen murriztuko dira.

STEILASek lanean jarraituko du orain arte bere lanean aritu direnak kontsolidatzeko, eta kalera aterako gara inor atzean utziko ez duen egonkortze prozesu bat aldarrikatzeko.

**Lanean ari direnak, geldituko dira!**